

ASHMITA GUHA NEW DIRECTORS

# Erosotasun eremutik ateraz

SERGIO BASURKO

Ashmita Guha Neogi, kalkutarra jaio-tez eta izatez, Indian lan egiten duen zinemagilea da. Zuzendaritzan eta gi-doigintzan graduatu zen Indiako Zinema eta Telebista Institutuan, Pune hirian. Harrez gero, hainbat film labur zuzendu ditu, horietako batek, *CatDog* izenekoak, Grand Prix saria irabazi zuen 2020an Cannesko zinema-jaialdian, eta Orona-Nest saria, berri, Donostia Zinemaldian.

Zuzendari Berrien atalean epaimahaikide aritzea "sentipen zirrarragaria" dela aitor du Ashmitak: "Zinemagile gazte hauek guztiak nire gisakoak dira, nire berdinak. Beraz, neure buruari eskatuko niokeena eskatuko diet eurei ere. Alegia, bai Indian baina baita munduko beste herrialde askotan ere batera existitzen diren errealitate anitz daude. Norberak berea ezagutzen du, baina nire iritzian, beste errealitateetara adi egotea da sortzaile baten eginbidea, norberarenareez den ikuspuntuan arakatzea, emaitza ahalik eta aberatsen

izan dadin". Zentzu horretan, epai-terakoan beren erosotasun-eremutik irteten diren zinemagileen lanak aintzat hartuko ditu.

Gazteek euren filmetan kontatzenten dituzten istorioetan errepara-tzea atsegin du "establishmentetik kanpoko ikuspuntuak eskaintzen dituztelako". Zinemak ehun urte baino gehiago dituela eta baliabide in-dartsu horrekin zer egin nahi dugun



ULISES PROUST

## "There's so much to learn from the younger generations"

Ashmita Guha is an Indian filmmaker whose short film *CatDog* won the Grand Prix at the Cinefondation section at Cannes and the Orona award at the Nest section here in San Sebastián in 2020. She has come to the Festival to form part of the New Directors jury. She says that she is really excited about having the

chance to judge the work of people who like herself are young directors. She especially values the work of filmmakers who constantly go beyond her own comfort zone and tell stories that offer her an alternative viewpoint to the official narratives provided by news outlets. She also stresses that she is interested in the

fact that cinema is not a new medium and that it is important to constantly think about how it can be reinvented: something that is easier for new directors who still have no established language of their own. As for her current projects, she has just finished a medium length film and is in the process of writing her first feature film.

eta berau berrasmatzeko tenorea dela deritzo. Eta bere arrazoibide irmoari heltzen dio: "Zinema egitea oso garestia da, hortaz, serio har-tu beharreko lanbidea da, eta eti-kaz jokatu".

Jakina da, Indian, Bollywood erako zinema komertzial eta entretenigarria gailentzen dela, "baina Indian ere ba-da zineaz, zinema interesgarriaz as-ko dakien jendea ere". Hori dela eta, iaz OffSeason Films ekoiztetxea fundatu zuen (fundatzaileetako bat da). Delhin du egoitza nagusia enpresak, eta koprodukzio europarretan zen-tratuta dago. "Indian, gaur egun, ez dago zinema egiteko finantzazio publikorik. Gure enpresatxoan gabezia hori leuntzen saiatzen da, xumeki", azaldu digu

Epaimahaikide indiarrik emaku-mecko zinemagile frantsesen eragina onartzen du: "Zinema-eskolan nen-bilela hamar gizonezko eta ni ginen ikasgelan; kontuak atera, noizean behin giro hartatik ihes egin beharra neukan eta zinema frantsesean aurkitu nuen ihesbidea. Emakumez-koek kontatzen zituzten istorioekin guztiz konektatzen nuen. Jakina, ho-rrek ez du esan nahi beste herrialde eta zinemagileen eragina jaso ez du-danik", argitzen du.

QUE EL CINE  
DEJE HUELLA  
EN LA GENTE,  
NO EN EL PLANETA.

creast.

Te ayudamos a reducir, medir y compensar la huella de carbono de forma sencilla, rigurosa y asequible, mejorando así la sostenibilidad de tus películas, salas de cine y eventos.

[www.crest.network](http://www.crest.network)

Colaborador del Festival de San Sebastián

70 | SSIFF Donostia Zinemaldia  
Festival de San Sebastián International Film Festival